

EUSKARAREN LEGEAK >>>

bat
Soziolinguistika
aldizkaria

DOSSIERRA

70. zenb. / 2009 (1)

3

ILPREN KONTAKIZUNAK

Julen Urbiola


Zuzenbidean Lizentziatua eta Euskara Kultur Elkargoaren zuzendaria

Helbide elektronikoa: iulen@euskarakultur.org

Bat Soziolinguistika aldizkariko arduradunek Nafarroako egoerari —legeari— buruz idaztea eskatu didate Euskararen Legeak izenburuarekin osatu duten monografiko honetan. Zure aurrean daukazun artikulua eskaera horri erantzun nahi dio. Hala ere, idazki honetan ez dut azterketa tekniko hutsa egin nahi eta, asmo horrekin bat, zuen begietara istorio bat ekarriko dizuet, edo hobe esanda, hiru istorio ezberdin; hirurak beste hainbat nafarren istorioak. Eta istorio horien bitartez Nafarroan, azken 25 urtean, euskararen inguruan azpimarratzeko izan diren joan-etorriak ezagutuko ditugu. Finean, euskaldunen hizkuntza eskubideez ari garenean, pertsoez mintzo baikara.

Idazki honetako oin-oharretan datu tekniko gehienak biltzen dira.

Gure protagonistak I, L eta P dira, hiruok orain dela 25 urte jaiotakoak; zehazki, I Iruñean jaio zen. Euskararen Foru Legearen¹ arabera eremu mistoan². L, berriz, Nafarroako eremu euskaldunean³; Lesakan hain zuzen ere. Eta azkenik, P, Pitillasen; aipatu legearen arabera, Nafarroako eremu ez euskaldunean⁴.



I

I-ren gurasoek, nahiz eta euskaraz mintzaten ez jakin, argi eta garbi zuten, hurrek euskaraz ikasiko zutela. Familia nafarra zen eta, zoritzarez, euskararen transmisioaren etena, Euskal Herriko hainbeste tokitan gertatu ohi den bezala, I-ren aitatxiarengan gorpuztu zen. Aitaxik kontaktzen zion bera txikia zenean eskolan euskara erabiltzea debekatua zegoe-la; gaztelania zela eskolan entzuten zen hizkuntza bakarra. Bestela...*xiax*, esaten zuen. Horrez gain, baliabide urriko familia batean jaioa zenez, 12 urtetan herritik alde egin behar izan zuela, lanaren bila, gogorarazten zion aukera bakoitzean. Geroztik, debekuz debeku (Franco garaia zen) eta pixkanaka-pixkanaka, euskara ahaztu zitzaion. Alabak jaiotzeko unean, I-k jadanik ez zekien nola gozatu bere ama-hizkuntzarekin.


Hezkuntza ez Unibertsitarioa (bat)⁵ Oztopatzearen istorioa

I jaiotzerakoan, 1983. urtean, ez zegoen Euskararen Foru Legerik. Alabaina, bazegoen euskarazko irakaskuntza publikoa, nahiz eta oinarri juridikorik ez izan. 1988. urteko udaberrian Nafarroako Gobernuak 159/1988 Foru Dekretua onetsi zuen, euskarazko ikasketak hezkuntza ez unibertsitarioan arautzeko helburuarekin. Dekretu horrek gaurdaino iraun duten hizkuntza ereduak abian jarri zituen; hots, A (Gaztelaniaz, euskara ikasgai bezala), B (euskaraz eta gaztelaniaz), D (Euskaraz, Gaztelania ikasgai gisa), G (gaztelania hutsez) ⁶.

Nafarroan, azken urteotan, D ereduaren inguruko berriek kolokatasuna izan dute ardatz. Lekurik ez, dirurik eza, azpiegitura urriak, gurasoen mobilizazioak zerbitzu duinen eske, lehiaketa desleialak eta abar izan dira etengabe.

Eremu mistoko herritarrek erakunde publikoetara euskaraz zuzentzeko eskubidea dute, baina horrek ez du esan nahi erakunde publikoak euskaraz erantzun beharra dutenik.

I-k Ikastola pribatu batean egin zituen hezkuntza ez-unibertsitarioko ikasketak guztiak; euskara nahi gabe ikasi zuen, baino hizkuntza horren erabilpena ikastolaren eremuetara mugatzen zitzaion, gizartearen gaine-rako esparruetan euskararen presentzia urria zelako. Urteak pasa ahala, D ereduak indarra hartu zuen, eta I Nafarroako Unibertsitate Publikoan matrikulatu zenean (2001ean), eredu horrek foru lurraldearen ikasleen %25,2 biltzen zuen. Kontuan hartu behar da, gainera, D ereduak ez zela eremu-ez euskaldunean eskaintzen. Horrek esan nahi du D ereduak bere bezero potentzialen %40 inguru biltzen zuela.



G eta D ereduaren bilakaera Nafarroan

I-k bere lagun irakasle bati sarritan gogoratzen dio euskarazko irakaskuntza publikoa eremu mistoan eta euskaldunean dagoela bermatua; baina teoriar da hori. Izan ere, eguneroko jardunean oztipoak dira nagusi. Nafarroan, azken urteotan, D ereduaren inguruko berriek kolokatasuna izan dute ardatz. Lektorik ez, dirurik eza, azpiegitura urriak, gurasoen mobilizazioak zerbitzu duinen eske, lehiaketa desleialak eta abar izan dira etengabe, bai eremu euskaldunean, bai eremu mistoan⁷.

Nafarroako Hiriburua Ezabaketaren istorioa

2006ko Sanferminetan Donostiako lagun batek deitu zion, festetara etorriko zela esateko. Iruñera egindako lehenengo bisita zenez, I-k egun osoa antolatu zion: entzierroa, prozesioa, hamarretakoa, bazkaria, zezenak eta abar. Donostiara itzultzeko momentua ailegatu zenean, halaxe esan zion I-ri, "jaiak, jendea eta giroa ezin hobea, benetan oso ongi pasatu dut, baino hala ere, asko harritu nau euskarak kalean duen presentzia eskasak. Entzun, bai, entzun dut, baino ikusi oso gutxi".

XXI. mende hasierarekin, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikak erro-erroko aldaketa izan zuen, eta eraginak Nafarroa osoan sumatu genituen⁸. Bestek beste, Iruñean, Barcina andreak zuzendutako udalak eten egin zuen Euskararen Udal Ordenantzaren⁹ garapena eta horrek ondorio larriak izan zituen: alde batetik, kanpo irudia dago. Nahiz eta

Ordenantzak kanpo irudia elebitan egin behar dela agindu, UPNek eta CDNek osatutako udal gobernua kontrakoa sustatu eta garatu zuen. Ondorioa izan da gaztelania nagusi dela bando, ediktu, zigilu, logotipo, karrika eta eremu publikoetako errotulazioan; gauza bera udal egoitzan eta bulegoetako errotulazioan, langileen arropan eta lan-jantzietan, agirietan eta abarretan.

Beste alde aldetik, Iruñeko udalaren lanpostuen hizkuntza eskakizunen beharrak aztertzen zituen txostena tiradera batean gorde zen. Txosten horretan 140 lanpostu inguru aurreikusten ziren euskara derrigorrezko eskakizunarekin, Iruñeko Udalak hiritarrei euskaraz egiteko onartutako eskubidea bermatzeko. Geroztik, 2001eko udalaren plantilla organikoan 5 lanposturi eskatu zitzaizen euskaraz jakin beharra.

Orduetik hona, Iruñeko Udalaren kontrako kexak eta salaketak aunitz izan dira eta aunitz ere Iruñeko Udalak auzitegietan galdutako auziak.

Horren ondorioz, epaiak ordenantza betetzera behartu zuten Barcinak zuzendutako Udala; alkate andreak, ordea, legeak bermatutako eskubideei ekitearen orde, udal ordenantzaren aldaketari ekin zion. Eta ez behin bakarrik, hirutan baizik: 2002, 2004 eta 2005. urteetan, zehazki. Aldaketak bi helburu nagusi izan zituen: batetik, araua gobernu taldearen ikuspegi politikora egokitzea, eta bestetik, epaiak bete behar izatetik libratzea. Horrela, aldaketa horiek, batetik, euskara baloratzeko betebeharrak ezabatu zuten A eta B¹⁰ maileri dagozkien lanpostuetan eta, bestetik, elebitasunaren kontzeptua berrinterpretatu zuten. Aurrerantzean, Iruñeko Udalaren arabera, elebitasuna informazioa bi hizkuntzetan ematean datza baina elkarren artean bereizitako euskarrietan.¹¹ Ordenantzaren hirugarren aldaketak ezabatu egin zuen batzorde mistoak sortzeko agindua. Aldaketaren xedea izan zen udal gobernu taldearen eskuetan soilik gelditzea euskaraz jakin behar duen langile kopuruaren zehaztapena eta Iruñeko finkapen toponimikoa.

I-k Unibertsitatean zuzenbidea ikasten zuen eta, teoriarik, bere hiriko udalak, urte horietan, aurrera eramane zituen aldaketak, udalbatzaren bozen gehiengoak lortu arren hizkuntza eskubideak murrizten zituen, eta horrek nazioarteko, eta zehazki Europako Hizkuntza Gutxituen Kartaren kontra, egiten zuen. Arauaren aldaketak, aldi berean, epaiak betetzetik libratzeko baliagarriak izan zirenez, lege iruzur baten aurrean ote ginen galdetzen zion bere buruari.

Iruñeko kaleetan barna paseatzea gustukoa izan du beti I-k eta, zaletasun horren bidez, ohartu zen euskara Nafarroako hiriburuan gero eta gehiago erabiltzen zela¹²; batez ere, gazteen artean eta guraso berriek bere haurrekin hitz egiterakoan. Aldi berean, ordea, Iruñeko errotuluetan, udal bulegoetan, agiri ofizialetan eta abarretan, gero eta gutxiago ikusten zen eta, zoritzarrez, halaxe gertatzen da gaur egun. Eta euskara ikusteko aukerak daudenean, gainera, hizkiak ia beti gaztelaniazkoak baino %30 txikiagoak dira eta kolore ezberdinekoa ere bai; apalagoa, zuritik ez oso urrun.

“Euskara lingua navarrorum izatetik nafar batzuen hizkuntza izatera pasa da; hitz ederrak aparte utzita, batzuen, eta ez guztien, ondare bilakatu da”.

Euskara, Nafarroako berezko hizkuntza, Europar Batasuneko hizkuntza ofizialekin dekretu bidez parekatzeak euskararen desgaitze juridikoa ekarriko zuen, hizkuntza horiek ez baitute inola ere zerikusirik Nafarroako gizartearekin, kulturarekin eta historiarekin.

Unibertsitatea Mutatis Mutandis

Nafarroako Unibertsitate Publikoko egoera ez zen hobeagoa. I-k euskararen inguruan aurrerapauso gutxi ikusi zituen unibertsitateko ikasketak egin zituen urteetan. Lehenik eta behin, hautatutako karrera ez zuen euskaraz ikasi, holako eskaintzarik ez zegoelako.

Nafarroako Parlamentuak eskaturik, Nafarroako Unibertsitate Publikoa 1987an sortu zen. 1995ean, lehenbiziko estatutuak onetsi ziren¹³, eta 2003an¹⁴, estatutuak aldatzea onartu zen¹⁵. Bi estatutuetan euskara eta gaztelania Unibertsitateko hizkuntza gisa aitortuak daude eta, era berean, aitortua dago unibertsitate-erkidegoko kide orok duela euskara administrazioan nahiz irakaskuntzan erabiltzeko eskubidea. Dena dela, desberdintasunak ere badaude bi estatutuen artean euskararekiko tratuari dagokionez; horrela, estatutu berriek legezko estaldura murriztu diote euskarari NUP barnean. Besteak beste, haxe nabarmenduko dugu: lehenago artikuluetan *bermatu* aditza erabiltzen zen; orain, aldiz, *saiatu* aditza erabiltzen da¹⁶; Euskaltzaindia desagertu da euskara erabiltzeko jarraibideak markatzerakoan eta edukiz hustuta gelditzen da Hizkuntza Normalizatorako Batzordea; araudi berrian ez dago bermatua ikerlanak Unibertsitateko berezko bi hizkuntzetarik edozeinetan aurkeztu eta argitara emateko aukera, etab.

2002ko apirilean, estatutuak aldatu baino urtebete lehenago, I beldurtuta geratu zen Nafarroako Gobernuak euskara unibertsitatean erabiltzeari buruzko aurkeztutako lege proiektua irakurtzerakoan. Gobernuaren proposameneko lehen artikulua halaxe zioen, hitzez hitz esan ere: *“La Universidad Pública de Navarra impartirá exclusivamente en castellano o español la docencia de todas las materias y asignaturas que figuran o figuren en sus planes de estudios conducentes a la obtención de títulos universitarios de carácter oficial y validez en todo el territorio nacional, homologados por el Consejo de Universidades o, en su caso, el Consejo de Coordinación Universitaria.”* Zorionez, proiektu hori ez zen onartu.

Unibertsitateko ikasketak bukatzeaz zegoenean, garai horretako errektoreak Nafarroako Unibertsitate Publikoan hizkuntza normalizatze-ko bosgarren plangintza aurkeztu zuen. Aurretik, lau saiakera izan ziren¹⁷ baina euskaltzaleen eta errektore taldeen arteko desadostasun sakonak zirela-eta, inoiz ez ziren indarrean jarri. Zoritzarrez, plangintza aurkeztu eta bost hilabetera, euskara batzordeko buruek dimisioa eman zuten, aurrerapausorik ematen eta aurreikusten ez zelako. Berriz ere porrota begien aurrean.

2007ko martxoan, I-k prentsan irakurri zuen, NUPek Euskararen Plan Estrategikoa onetsi zuela 2007-2009 urteetarako. Plana onetsi eta egun batzuetara irakurri zuen Nafarroako Gobernuak Unibertsitateetarako zuzendari nagusiak “burugabekeria” iritzi ziola Unibertsitateko Plan

estrategikoari. Haren esanetan, “NUPEko sektore batzuk interesatuta daude Nafarroako Unibertsitate Publikoak Nafarroakoa izateari utz diezaion, Euskal Herriko Unibertsitateko luzapen hutsa izan dadin, eta NUP ez dai-teke ezertan ere EHU bezalakoa izan”¹⁸. I-k hotzikara handia sentitu zuen.

Administrazioa (bat)¹⁹ Profesional onak vs Profesional euskaldunak

Unibertsitateko ikasketak bukatzerakoan, 2005.urtean, lan bilaketari ekin zion. Nafarroako Gobernuak deitutako oposaketetara aurkeztu zen. Lehiaketan zegoen lanpostua herritarrekin harreman zuzena izan arren, deialdian ez zen euskara balioetsi; ingelesa, frantsesa eta alemanera bai, ordea. I-k, Nafarroako erregistroaren bidez, kexa aurkeztu zuen. Leihatil-an zegoen langileak, kexaren oinarriak irakurtzerakoan, euskaraz hitz egin zion: “administrazioak profesional onak behar ditu eta ez euskaraz dakiten profesionalak; horrela erantzun zidan behin Nafarroako gober-nuko goi-kargu batek. Nik euskaraz dakit baino nire lanpostura aurkez-tu nintzenez euskara ez zen baloratu. Eta orain jendearekin sarritan ari-zen naiz euskaraz”. Eta amaitzeko, hauxe esan zuen haserre xamar: “herritarrei nik neuk bermatzen diet euskaraz aritzeko eskubidea; ez, ordea, gobernuak”. Erregistroko bulegotik irteterakoan bulego horren errotulazioa, kartelak, gaztelaniaz hutsez zeudela konturatu zen.

Kexaren erantzuna gaztelania hutsez ailegatu zitzaion. I-k euskaraz idatzitakoari gaztelaniaz erantzun zioten. Erantzunak halaxe zioen gutxi gorabehera: lanpostua eremu mistoan dagoenez, euskara ez da derri-gorrezkoa; eremu mistoko herritarrek erakunde publikoetara euskaraz zuzentzeko eskubidea dute, baina horrek ez du esan nahi erakunde publikoak euskaraz erantzun beharra dutenik²⁰. I lur eta zur geratu zen.

Gaur egun I lanean ari da, barne lehiaketa baten bidez, Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzaren ordezkari erakundean: Euska-rabidea izeneko erakundean, alegia. Pegenauteren azken hilabetea zen. Jendearen arabera eta, momentuz bederen, Nafarroak izan duen euskara-ren arduradun txarrena. 18 hilabete pasa dira Euskarabidea sortu zenetik eta, oraingoz, I-ren aburuz, bertako agintariak Pegenauteren garaian one-tsitako legediaren menpean jarraitzen dute; aurrekontuak ederki murriz-tuta, gainera. Hori dena gutxi izango ez balitz bezala, UPNren borondate politikoa ez da aldatu²¹. I-k epe ertainera ez du aldaketa handirik espero.

L


L Lesakan jaio zen bertako familia euskaldun batean. Eskolan gaztelaniaz hitz egiten ikasi zuen, euskaraz aritzen zen ikastetxe batean ikasi arren. I-ri gertatu ez bezala, L-eren euskararen eremua ez zen eskolara mugatzen. Familian, plazan, lagunekin jolasterakoan, euskararekin gozatu egiten

Foru Gobernuak, era berean, azken 25 urte honetan, ez du EITBren harpena erraztu, eta hargailu pribatuen bidez iritsi dira seinaleak Nafarroara. Orain ere, telebista analogikoaren bukaerarekin ez dakigu akordio batera iritziko diren Nafarroako Gobernua eta EITB.

***Ekonomia arloan
Gobernuak ez du ez
debekatzen ez egiten ere.
Dena sektore pribatuaren
borondatearen esku
geratzen da. Horrela,
hizkuntza
normalizatzeko planak
egin dituzten enpresek
beren diruz ordaindu
behar izan dituzte
azterlanak, bai eta behar
ziren gainerako lanak ere.***

zuen. Lehenengo musuak euskaraz izan ziren. Hala ere, amaxirengandik, I-k bezala, istorio beltzak jaso zituen, eta istorio horien hitz gakoak mespretxuak, debekuak eta zigorrak ziren; haurtzaroan, gaztaroan, amaxiren bizitzan zehar. “Eta ez pentsa; oraindik ere, halakoak usaintzen ditut batzuen jokabideetan” esaten dio L-ri hainbeste urtez bizitzeko adorea eman dion jenio txarrez.

L-k betidanik ezagutu du aita euskara eta euskal kulturaren inguruko lanetan. Aitak euskara maite du eta ez du inoiz ulertu zergatik Nafarroako Legebiltzarrak euskaren koofizialtasuna²² aitortu arren, azkenean Nafarroa hiru hizkuntza eremutan zatitu zen. Parlamentuak 1980an harturiko erabakia ez betetzeak euskara politizatzeko garai berri bat ireki zuela pentsatzen du aitak²³. Orduz geroztik, beti esaten du “Euskara *lingua navarrorum* izatek nafar batzuen hizkuntza izatera pasa da; hitz ederrak aparte utzita, batzuen, eta ez guztien, ondare bilakatu da²⁴”.



L Nafarroako eremu euskaldunean jaio zenez, Nafarroako Gobernuak hizkuntza eskubide osoak aitortu zizkion; eremu horretan erroldatuta egon zen bitartean, bederen. Gaur, Iruñean bizi da eta Gobernuak eremu mistoko herritarren hizkuntza eskubide berberak aitortzen dizkio.

16 urterekin Gipuzkoara joan zen **lanbide heziketako** ikasketak egi-tera. Euskaraz egin nahi zituen eta, Nafarroan hori ezinezkoa zenez, Gipuzkoara joatea erabaki zuen²⁵. Herrialde horretan ikasten zuen bitar-

tean, Nafarroako hizkuntza politikaren atzeranzko aldaketak bere horretan jarraitu zuen.

Administrazioa (bi)

372/00 Foru Dekretua,²⁶ atzera pausoaren istorioa

Nafarroa osoan euskararen koofizialtasuna aitortzearen aldeko agiria sinatu zuen L-k, 2000. urtean. Prentsan irakurri zuen, osotasunera, Oinarriak izeneko plataformak 48.000 sinadura aurkeztu zituela Nafarroako Parlamentuan. Eskaera horren aurrean, gobernuak bi mailotan eman zuen erantzuna: lehenengoa, nafar agintariek Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren eskumenak eta eginkizunak berritu eta aldatu zituzten eta, horren ondorioz, Zuzendaritza Nagusi hori Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusi bihurtu zuten²⁷. Metamorfosi horren bidez, hizkuntza politika ez zen aurrerantzean hizkuntza zehatz bati, euskarari, lotuta egonen, baizik eta, oro har, hizkuntzekin izanen zuen zerikusia. Horrela, eginkizuna ez zen euskararen aplikazioa eta garapena koordinatzea, gaztelaniaz bestelako hizkuntza guztien aplikazioa eta garapena koordinatzea baizik²⁸. Euskara, Nafarroako berezko hizkuntza, Europar Batasuneko hizkuntza ofizialekin dekretu bidez parekatzeak euskararen desgaitze juridikoa²⁹ ekarriko zuen, hizkuntza horiek ez baitute inola ere zerikusirik Nafarroako gizartearekin, kulturarekin eta historiarekin.

Bigarrena, Foru Dekretu berria onartu zuen, 372/00 FD, administrazioan euskararen erabilera arautzeko. Dekretu horrek erabat eskubiderik eta betebeharririk gabe utzi zuen eremu mistoa, eta euskara eremu euskaldunera zokoratzen zuen, eta han ere, ez oztoporik gabe. Euskara Nafarroako bide-seinaleetatik desagertu zen, eremu euskaldunetik izan ezik; eremu mistoan, ia balio osoa kendu zitzaion euskaraz jakiteari, eta betiere ingelesarekin, frantsesarekin eta alemanarekin parekatuta. Arau hori onestearen ondorioz, Nafarroako Administrazio Publikoak 2001ean ezabatu egin zituen euskara jakitea beharrezkoa zen lanpostuen %40: hau da, 253tik 149ra, eta Foru Administrazioan 13.000 langile ari ziren. Horrela, foru dekretuen bidez, arian-arian euskararen erabilera murriztu egin dute administrazio publikoan (foru dekretuak Euskararen Foru Legeak baino lerrun apalagoa du).

Egia da ez dagoela hizkuntza politika ideala, esaten zion L-k bere buruari, lurralde eta gizarte bakoitzak bere berezitasunak ditu; baina Europarrok ezin dugu onartu hizkuntza garapen eta normalizazio prozesuan atzera pausoa ematea, hizkuntza sendoari bere estatus abantailatsua itzultzeko. Hori onartezina da.³⁰ Eskubide murrizketen azpian ez dago legezko agindurik, irizpide politiko hutsa baizik.

2002ko eguberrietan Iruñera joan zen bizitzera. Urte horretako udan Nafarroako Auzitegi gorenak 372/00 FD³¹ baliogabetu zuen; epaiaren arabera, dekretua onesteko prozeduran funtsezko forma-akatsak egon ziren.

Hizkuntza eremuak ez dira arautu euskararen egoera soziolinguistiko ezberdinak kontutan izateko eta, horren ondorioz, mailaz mailako plangintzak garatzeko. Eremuak harresiak bezala eraiki dira eta eskubideak eremuei aitortu zaizkie; ez pertsonei.

Euskaltegian lanean ari zela, bertatik bertara bizi izan zituen Gobernuak erakunde horiei urtez urte emandako dirulaguntza publikoen murrizketak. Horrela, 2002an kostuaren %45 diruz laguntzetik, 2005ean %18ra jaitsi zen.

2003ko otsailean helduentzako euskarazko klaseak ematen hasi zen. Hilabete horretan, Nafarroako Gobernuak beste dekretu berri bat iragarri zuen³², aurrekoaren irizpide berberekin. Ezberdintasun bakarra zekarren; xedapen berri batek, izan ere, kartel elebidunen (euskara-gaztelania) ordezkartel elebakarrak (gaztelania hutsezkoak) jartzeko kontusailak gaitu zituen³³.

Euskaltegiak Murrizketen istorioa

Euskaltegian lanean ari zela, bertatik bertara bizi izan zituen Gobernuak erakunde horiei urtez urte emandako dirulaguntza publikoen murrizketak. Horrela, 2002an kostuaren %45 diruz laguntzetik, 2005ean %18ra jaitsi zen.

1997. urtean, Nafar Gobernuak dirutza handiagoa bideratzen zuen helduen heziketara 2007an baino.

Haur Hezkuntza Euskara gutxi

2006. urtean, L-k bizkiak izan zituen. L-k ez du inoiz zorte handia izan, edo hala sentitu du, bederen. Haatik, koadrilako gurasoek azken bi urtean behin eta berriro oroitarazten diote sekulako zortea izan zuela, bizkiak euskarazko haurtzaindegi publiko batean matrikulatzeagatik. Iruñean 17 haurtzaindegitatik, 12 gaztelaniaz dira, 3 ingelesez, eta bik bakarrik eskaintzen dute euskarazko zerbitzua; biak auzo berberean. Nafarroako gaineko eskualdetan ere egoera ez da ezberdina, latzagoa ez bada.

Hedabideak Babes publikorik gabe

Euskaltegiko irakasle-soldata nahikoa ez zenez, beharizan berriei aurre egiteko, euskarazko hainbat hedabiderek hasi zen kolaboratzen. Bazekien sektore hori ez zela eroso eta, are gutxiago, aberasteko modukoa. Hor zegoen, esate baterako, Egunkariaren itxiera.

Hala ere, L-ren iritiz, Nafarroan euskarazko hedabideei buruz hitz egiterakoan, bi egoera nabarmentzekoak dira: alde batetik, Euskalerrira Irratia eta, beste batetik, eremu euskalduneko telebistak. Lehenengoari dagokionez, duela 20 urtetik gora, eremu mistoan euskara hutsez ari den irrati bakarra da, eta oraindik ez diote emititzeko baimenik eman, administrazioak atzera bota dituelako irratiak lizentzia bat lortzeko egindako eskaerak guztiak. Lizentziarik ez izatearen ondorioz, komunikabide horrek ezin ditu nafar agintariek urtean behin ematen dituzten dirulaguntzak jaso, eta horrek publizitate pribatuaren menpean egotera behar-

tzen du irratia. Irratiak afera auzitara eraman zuen eta, horretarako, argudiatu zuen lizentziak emateko azken prozesua ez zettorrela bat betebeharr juridikoekin. Auzitegietan zazpi urtez aritu ondoren, epaileek 1998ko lizentzia-banaketa balio gabe utzi eta arrazoia irratitari eman zioten³⁴. 2006aren bukaeran-2007aren hasieran, epaiak beharturik, nafar agintariek lizentziak emateko prozesua errepikatu eta, berriz ere, irrati hori utzi dute kanpoan; horren ondorioz, komunikabideak berrituz auzitegietara jo behar izan du³⁵.

Bigarren kontuari dagokionez, Xaloe Telebista eta Ttipi-Ttapa Telebista, eremu euskaldunetan kokatuko euskarazko tokiko telebistak dira. Kate bakoitzak 16.000 ikus-entzule ditu eta Nafarroarako euskara hutsez ari ziren bi telebista bakarrak ziren. Telebista analogikoaren sistematik Telebista digitalera pasatzearekin, administrazio zentralak Tokiko Telebista Digitalerako Plan Tekniko Nazionala diseinatu eta onetsi zuen 2004an³⁶, sektorea arautzeko. Planak 266 barruti ezarri ditu, eta horietako bost Nafarroarako dira; bat bera ere ez euskal eremurako. Araudi berria kontuan hartuta, eta barruti berri guztiak eremu euskaldunetik kanpo daudenez, bi Telebistek ez dute haien lana babestuko duen legezko esparrurik izanen eta administrazioak ez ditu aintzat hartuko.

2009.ko urtarrilean, Ttipi-Ttapa Telebistak prentsa ohar baten bitartez iragarri zuen, telebistaren jarduna ilbeltzaren 31n geldituko zela³⁷. Hortik gutxira, L-k prentsan irakurri zituen, Carlos Pérez-Nievas Nafarroako Hezkuntzako Kontseilariaren adierazpenak, telebistaren itxiera gobernuari ezin zitzaiole leporatu argudiatuta³⁸. Leporatu agian ez, baino babestu, gutxi babestu dutela bai, alderantziz ez bada, pentsatu zuen L-k.

30 egun geroago, Carlos Pérez-Nievasek berak Nafarroako Legebiltzarrean adierazi zuen³⁹ 2009. urtean euskarazko hedabideek dirulaguntza publikoak jasoko zituztela; hori bai, %97 murriztuta: 2008ko aurrekontuetako 310.000 €-tik, 2009ko aurrekontuetako 10.000 €-ra.

Foru Gobernuak, era berean, azken 25 urte honetan, ez du EITBren harpena erraztu, eta hargailu pribatuen bidez iritsi dira seinaleak Nafarroara. Orain ere, telebista analogikoaren bukaerarekin ez dakigu akordio batera iriziko diren Nafarroako Gobernu eta EITB, kate hori Nafarroan telebista digitalen bitartez ikusteko aukera izan dadin.

P

P familia erdaldun batean jaio zen; euskararekin harremanik ez zuen familian, hain zuzen ere. Tafallan, 10 urte zituelarik, aitari galdetu zion zer hitz egiten ari ziren berarekin jostetan zebiltzan beste haur batzuk; euskaraz, erantzun zion. Urte gutxitara ohartuko zen bere abizena euskal abizena zela.

Euskara ez zen bere mundukoa; elementu arrotza zen. Eskolan, plazan eta familian, euskarari buruz, euskaldunei buruz edota euskal kultu-

2009.ko urtarrilean, Ttipi-Ttapa Telebistak prentsa ohar baten bitartez iragarri zuen, telebistaren jarduna ilbeltzaren 31n geldituko zela³⁷. Hortik gutxira, L-k prentsan irakurri zituen, Carlos Pérez-Nievas Nafarroako Hezkuntzako Kontseilariaren adierazpenak, telebistaren itxiera gobernuari ezin zitzaiole leporatu argudiatuta.

Eremu horretako gurasoek seme-alabak ikastolara eraman behar izan dituzte, haientzako euskarazko hezkuntza nahi bazuten, eta horrek dudarik gabe ahalegin ekonomiko eskatzen du. Eremu horretako ikastolak linbo juridikoan izan dira 2006ko uda arte.

rari buruz hitz egiten entzuten zuen gehienetan, eztabaidak sortzen ziren gaiaren inguruan. Txikitan euskara hitz gatazkatsua zela sinesten zuen eta gaur egun ez du iritziz aldatu.

Hezkuntza ez Unibertsitariora (bi)

P-k gaztelania hutsezko ereduari ikasi zuen. Eremu ez euskalduneari, euskarazko ereduari 2008/09 ikasturtera arte⁴⁰ ez da eskaini. Nafarroako Gobernuaren arabera, ez zegoen herritarren eskariari harrera egiteko betebeharririk. Irizpide politiko horien ondorioz, eremu horretako gurasoek seme-alabak ikastolara eraman behar izan dituzte, haientzako euskarazko hezkuntza nahi bazuten, eta horrek dudarik gabe ahalegin ekonomiko eskatzen du. Eremu horretako ikastolak linbo juridikoan izan dira 2006ko uda arte⁴¹.

Besteak

17 urterekin, Iruñera joan zen ikasten jarraitzera. Nafarroako hiriburuan egin zituen lagunak bitartez, pixkanaka euskarara hurbildu eta 19 urterekin euskaltegian matrikulatu zen, Unibertsitatean Historia ikasten zuen bitartean. Euskaltegiko azken kurtsoetan L-k eman zizkion eskolak. Euskararekin harremanak estutzen zituen heinean, Nafarroan euskarak eta euskal hiztunek bizitzen zituzten egoeraz jabetu zen.

Kultur jardueretan eta zerbitzuetan ere ez dago egitura indartsurik. Ez dago itzulpenak eta bikoizketak egiteko laguntzarik, laguntza gutxi daude euskarazko jardueretarako, gobernuek euskarazko argitalpen gutxiago plazaratu eta euskarazko liburu gutxiago ere erosten ditu. Ez dago plangintzarik, eta orain arte garatutakoa noizbehinkakoa da eta gehienetan izaera sinboliko hutsa du, eragin gutxiarekin gabea.

Justizia Administrazioan, euskararen presentzia eraikinen errotulaziora mugatzen da. Prozedura judicialak euskaraz egin behar edo nahi direnean, itzultzaileen bitartez bermatzen dira. P, ordea, ez da zuzenbidean aditua baino logikak esaten dio itzulpenak berehalakotasuna kentzen duela auziko parteentz artean eta informazioaren kalitatea murrizten duela ahozko auzibideetan. Itzulpena neurri gabe erabiltzeak oztopo egin diezaioke justizia zuzen administratzeari. Eta zalantzarik gabe, egoera hori erabat lotua dago justizia administratioko lanpostuetan euskara jakiteari ematen zaion balorazioarekin. Horrexegatik, guztiz esanguratsua egiten zitzaion P-ri Estatuko administrazioaren eskumeneko lanpostuetan artean, bakar batean ere euskara derrigorrez jakitea ez eskatzea.

Ekonomia arloan Gobernuak ez du ez debekatzen ez egiten ere. Dena sektore pribatuaren borondatearen esku geratzen da. Horrela, hizkuntza normalizatzekeko planak egin dituzten enpresek beren diruz ordaindu behar izan dituzte azterlanak, bai eta behar ziren gainerako lanak ere.

Gaineko euskal lurraldeekin sustatuko harremanak urriak izan dira euskarari dagokionez. Iparraldearekin ez dago ezer ere eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin 25 urte pasatuta, eta Hezkuntza Kontseilariaren hitzetan, "harreman profesionalak eta ez instituzionalak"⁴² izan dira, EGA baliozkotzerakoan eta funtzionarioen prestakuntzan. Gaur egun, hitz horiei gehitu behar zaie 2009an Iruñean izenpetutako bi gobernuen arteko Borondate Adierazpena, "Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko loturak estutzeko, eta hala, euskararen sustapena, ikerketa, dokumentazioa, plangintza eta hizkuntza politika bultzatzeko, euskararen hizkuntza normalizazioaren arloko lan-kidetza eta harremanak hobetze aldera"⁴³. P-k jakin badaki, borondateak ez duela inor behartzen.

Aldaketa Saiakerak

2005ko udazkenean, urrian; eguna ez du gogoratzen, baino bai gosaltzeko ordua zela, Europako Kontseiluak eremu mistoa eremu euskaldunarekin parekatu behar dela gomendatzen zuela irakurri zuen egunkari batean. Harrituta, berriz irakurri zuen esaldia. Hala zen, "eremu mistoa eremu euskaldunarekin parekatu behar da". P ados zegoen, azken finean eremu mistoan Nafarroako euskaldun kopuru handiena bizi da, bertan erakunde publikoen zerbitzu zentralak daude, Nafar guztientzako zerbitzuak, eta nola ez, D ereduko datuen arabera, hurrengo urteetan eremu honetako euskaldun kopurua haziko da. Hala ere P-k, faltan botatzen zuen eremu ez euskalduneko euskaldunei buruzko aipamenen bat; azken batean eskubideak pertsoneri dagozkie eta ez lurraldeei. Eta bera Pitillasen jaio zenez, oso ongi zekien bertako euskaldunen babes falta eta eremu horretako biztanleen jarrera euskarari zegoekionean.

I koadrilako laguna du eta berari sarritan entzun dio Euskarari buruzko Legea 1986an onetsi zenetik hona, hainbat saiakera egin direla huraxe aldatzeko, baina saio guztiak alferrekoak izan direla: 1992an⁴⁴, 1993an⁴⁵, 1994an⁴⁶, eta bitan, 1998an⁴⁷.

2004ko irailean, hizkuntza politikari buruzko ponentzia bat antolatuz zen Nafarroako Parlamentuan, Euskararen Legea ebaluatzeko eta, bere kasuan, aldatzeko. Hainbat gizarte eragile, aditu eta agintari deitu zituzten ponentzia hartara. Agintarien esanak alde batera utzita, gizarte eragile nahiz aditu guztiak legea aldatu beharra adierazi zuten, aho batez adierazi ere⁴⁸. Dena dela, handik hilabete batzuetara, 2005eko apirilean, ponentzia bertan behera gelditu zen, PSNk eta UPNK lege-esparrua aldatu nahi izan ez zutelako.

Show honen azkenaurreko kapitulua 2008. urtean izan dugu, bi emalditan gainera, eta bietan, berriz ere, porrota nagusitu da: lehenengoan Na-Baiko partaide bat kanpoan zebilelako, eta bigarrean, Alderdi Sozialistak iritzi aldatu zuelako. Hala ere, P-k argi eta garbi dauka azken

"Eremu mistoa eremu euskaldunarekin parekatu behar da". P ados zegoen, azken finean eremu mistoan Nafarroako euskaldun kopuru handiena bizi da, bertan erakunde publikoen zerbitzu zentralak daude, Nafar guztientzako zerbitzuak, eta nola ez, D ereduko datuen arabera, hurrengo urteetan eremu honetako euskaldun kopurua haziko da.

Nafarroan euskararen normalkuntza gai konplexua dela. 1980ko ebazpena baztertu zenean eta, Nafarroa osoan ofizialtasuna aitortu ordez, lurralde horren zatiketa baimendu zenean, bereizkeriari eman zitzaion bidea. Foru lurralde hau hiru hizkuntza eremutan zatitu zenean, Nafar herritarrei eskubide ezberdinak aitortu zitzaizkien eta Euskara *Lingua Navarrorum* izatetik Nafar batzuen hizkuntza izatera pasatu zen.

aldaketa horren eragina oso urria zela eta ez duela bat egiten Europako eskariarekin; baino nahiz eta aldaketa urria izan, onuradunentzako garrantzitsua zen⁴⁹.

Urteak pasa ahal, P-k gero eta harreman sendoagoa izan du euskarekin, eta penaz ikusten du nola Nafarroako Legebiltzarra ez den gai Euskararen Foru Legea gizartearen beharretara, eskaeretara eta borondatera egokitzeko.

ONDORIOAK

Nafarroan 22 urte joan dira Euskararen Foru Legea onartu zenetik. Lege hori Nafarroak bere ibilbide luzean zehar euskara normalizatzeko izan duen arau bakarra izan da. Baino horrek ez dio baliagarritasunik ematen. Egia da legea onartu zenetik Nafarroako euskaldunen kopurua igo dela eta euskarazko irakaskuntza ez unibertsitarioa, nahiz eta oztopoz beterik, ahalbideratu dela; baina aldi berean egia da hori gertatu dela Nafarroako gizarteak berak, oztopo guztien gainetik, euskara berea dela erakutsi eta frogatu duelako.

Artikulu osoa irakurtzeko pazientzia izan baduzu, argi geratu behar luke (bestela errua, nirea) Nafarroan euskararen normalkuntza gai konplexua dela. 1980ko ebazpena baztertu zenean eta, Nafarroa osoan ofizialtasuna aitortu ordez, lurralde horren zatiketa baimendu zenean, bereizkeriari eman zitzaion bidea. Foru lurralde hau hiru hizkuntza eremutan zatitu zenean, Nafar herritarrei eskubide ezberdinak aitortu zitzaizkien eta Euskara *Lingua Navarrorum* izatetik Nafar batzuen hizkuntza izatera pasatu zen. Horri loturik ere ulertu behar ditugu euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren datuak Nafarroako hiru hizkuntza eremuetan (Ikusi irudia).

Euskarari buruzko Foru Legearen helburuak lehenengo artikuluan aipatzen dira:

- I. Herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea.
- II. Euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz.
- III. Euskararen erabilpena eta irakaskuntza bermatzea, borondatez-kotasun, mailakatze eta begirune irizpideei jarraiki, hau guztia Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera.

Ez dut uste helburu horien kontra inor izango denik; edo agian bai, batez ere euskararen normalkuntzaren alde ez badago. Dena den, helburu horiek ezinezko bihurtzen dira lege berberak arautzen duen zonifikazioak indarrean dirauen bitartean. Zonifikazioa bera, borondate politikorik ezarekin bat, legeak agintzen dituen helburuak betetzeko oztopo

larriena baita. Hizkuntza eremuak ez dira arautu euskararen egoera soziolinguistiko ezberdinak kontutan izateko eta, horren ondorioz, mailaz mailako plangintzak garatzeko. Eremuak harresiak bezala eraiki dira eta eskubideak eremuei aitortu zaizkie; ez pertsoneri.

Halaber, legeak zehaztaperen gutxierekin definitzen ditu herritarrei aitortzen zaizkien hizkuntza eskubideak eta erakunde publikoek dituzten betebeharrak. Eremu mistoko biztanleek erakunde publikoei euskaraz zuzentzeko duten eskubidea artikulatu bakar batean arautzen da; Euskarazko hedabideak sustatzeko betebeharra beste batean; Eremu ez euskalduneko euskarazko irakaskuntza ere artikulatu batekin arautzen da eta horrela jarrai daiteke. Eskubide eta betebeharrak zehaztaperen falta honek ahalbidetu du euskararen normalkuntzan gertatu den 180 graduko aldaketa. Horrela, lege horren estalduraren pean zilegia da errepide seinaleak eta eraikinen errotulazioak gaztelania hutsez izatea, Nafarroako Gobernuaren bulegoetan harrera euskaraz ez izatea, Euskalerrria Irratiak dirulaguntzarik ez jasotzea, D ereduaren eskaera ez bermatzea, atzera pausoak gertatzea; eta hori guztia, gainera euskararen normalkuntzaren izenean.

Arrazoi horiek gogoan, eta 22 urte honetan, legeak babestu duen praktika administratiboa ikusita, ezinbestekoa deritzot Euskararen Foru Legea berrikusteari; alde batetik, bizi izan dugun kolokatasuna eta segurtasun juridikoa baztertzeko eta, ondorioz, bestaldetik, euskararen berreskurapena, erabilera eta irakaskuntza Nafarroa osoan babesteko. Azken finean, legearen berrikusketan dut, Nafarroako gizarteak balio demokratikoetan sakontzeko eta, nola ez, legeak aitortzen dituen helburuak betetzeko.

Dena den, lege horren edozein aldaketa egiteko, Nafarroako Legebiltzar kideen gehiengo osoa behar da; hala agintzen du Nafarroako araudiak, eta arestian ikusi dugun bezalaxe, erakunde horretako borondate politikoak beste lehentasun eta irizpide batzuk ditu. Bitartean, UNESCOk ohartarazten duen moduan, euskarak eta euskaldunok desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen eta hiztunen zerrendan jarraituko dugu.■

OHARRAK

1. Euskararen Foru Legeak 1986an onetsi zen
2. Abartzuza, Agoitz, Antsoain, Artzibar, Atarrabia, Atez, Barañain, Bidankoze, Bidaurreta, Burgi, Burlata, Deierri, Eguesibar, Erronkari, Espartza, Etxarri, Etxauri, Ezkabarte, Ezkaroze, Garde, Gares, Goñerri, Gesalatz, Gorza, Iruña, Itza, Itzaltzu, Izaba, Jaitz, Jaurrieta, Lezaun, Lizarra, Lizoainibar, Odieta, Olaibar, Oltza, Ollaran, Orontze, Orotz-Betelu, Otsagi, Sartze, Uharte, Urzainki, Uztarroze, Xulapain, Zabaltza, Ziritza eta Zizur.
3. Abaurregaina, Abaurrepea, Altsasu, Anue, Araitz, Arantza, Arano, Arakil Arbizu, Areso, Aria, Arribe, Arruazu, Auritz, Bakaiku, Basaburua, Baztan, Bera, Bertizarana, Betelu, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Ergoiena, Erroibar, Esteribar, Etxalar, Etxarri Aranatz, Ezkurra, Garaioa, Garralda Goizueta, Hiriberri, Igantzi, Imotz, Irañeta, Ituren, Iturmendi, Labaien, Lakuntza, Lantz, Larraun, Leitza, Lesaka, Luzaide, Oitz, Olazti, Orbaizeta, Orbara, Orreaga, Saldias, Sunbilla Ultzama, Urdazubi Urdiain, Urrotz (Doneztebe), Uharte-Arakil, Ziordia, Zubieta eta Zugarramurdi.

Arrazoi horiek gogoan, eta 22 urte honetan, legeak babestu duen praktika administratiboa ikusita, ezinbestekoa deritzot Euskararen Foru Legea berrikusteari; alde batetik, bizi izan dugun kolokatasuna eta segurtasun juridikoa baztertzeko eta, ondorioz, bestaldetik, euskararen berreskurapena, erabilera eta irakaskuntza Nafarroa osoan babesteko.

4. Nafarroako gainerako udalerriek osatua.
5. Bi urte lehenago, 1986, Euskararen Foru Legea onartu zen eta Hezkuntza ez Unibertsitariori buruz halaxe agintzen du: Eremu euskaldunean, ikasle guztiak irakaskuntza hartuko dute, guraso-boterea edo tutoretza daukan pertsonak, edo hala badagokio, ikasleak berak aukeratutako hizkuntza ofizialean (Euskarari buruzko 18/86 Foru Legearen 24.1 artikulua). Eremu mistoan, eskari nahikoa frogatu behar da, administrazio publikoak euskarazko irakaskuntza mailaz maila, gero eta gehiago bermatuko badu (Euskarari buruzko 18/86 Foru Legearen 25.1 artikulua). Eremu ez-euskaldunean, euskararen irakaskuntza bultzatua izanen da, eta hala behar izanez gero, botere publikoek osoki edo partzialki finantzatua, sustapen eta promozio irizpideei jarraiki eta eskarien arabera (Euskarari buruzko 18/86 Foru Legearen 26. artikulua).
6. Gaurdaino esaten dut, idazki hau osatzeko momentuan Nafarroako Hezkuntza Kontseilariak hizkuntza eredu honen alternatiba aurkeztu duelako: TIL eredia. Tratamiento Integral de Lenguas edo Hizkuntzen Tratamendu Bateratua. Ereduak bi bertsio ditu:
 - irakaskuntzako hizkuntza nagusia gaztelania denean, eskola-orduen %40 ingelesez eman daitezke.
 - irakaskuntzako hizkuntza nagusia euskara denean, eskola-orduen %30 ingelesez eman daitezke eta horri gaztelania gehitu behar zaio (denok ikastea behartuak baikaude).
7. Eremu ez euskaldunean 2008/09 ikasurtera arte ez da D eredia eskaini.
8. Ikusi Administrazioa (bi), 372/00 Foru Dekretua puntua idazki honetan.
9. Nafarroako Aldizkari Ofiziala. Zbk: 122- Data: 1997/10/10
10. NAO, 03/09/02
11. NAO, 04/01/23
12. Eremu mistoko 15 urtetik gorako biztanleen hizkuntza gaitasuna %16.1 da. Euskal Herriko Soziolinguistikako III inkesta (2001). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. Kopurua 19.2ra igotzen da IV inkestan (2006).
13. 68/1.995 Foru Dekretua, 1995eko martxoaren 13koa
14. Garain horretan ikasketak euskaraz jasotzeko aukera ondoko hau zen: 22 titulaziotik, 2 baino ez ziren euskaraz osorik eskaintzen: Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Irakasleen espezialitateak, biak ziklo laburrekoak zirela (hiru urteko iraupena duten diplomaturak). 18 kreditu ematen ziren euskarazko titulazio bakoitzeko (diplomatura batek 300 kreditu inguru ditu; lizentziatura batek, berriz, 450 bat). Irakasgaia euskaraz eman ahal izateko, irakasleek euskaraz irakasteko gaikuntza-proba gainditu behar zuten. Ezarri zenetik, proba hori ez zen egin, eta gainera, ez zen derrigorrezkoa klaseak ingelesez, frantsesez eta abarrez emateko
15. Klaustroak 2003ko martxoaren 7an onetsiak; Nafarroako Gobernuak, 2003ko maiatzaren 12an. Nafarroako Aldizkari Ofizialean 2003ko maiatzaren 19an argitara emandakoak.
16. 1995eko estatutuetako 106. artikulua halaxe dio: Unibertsitateak euskara eta gaztelania aldi berean erabiltzea bermatuko du; aldaketaren ondotik, 122. artikulua, ordea, hauxe dio: "Unibertsitateak gaztelania eta euskara erabiltzen saiatuko da".
17. 1995, 1997, 1998 eta 2000. urteetan
18. Ikusi Diario de Navarra, 2007/04/26.
19. Eremu euskaldunean hiritar guztiak, Administrazio Publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelera erabiltzeko eta hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute (Euskarari buruzko 18/86 Foru Legearen 10.1 artikulua). Eremu mistoan, hiritar guztiak euskara nahiz gaztelera erabiltzeko eskubidea dute Nafarroako Administrazio Publikoek zuzentzeko (Euskarari buruzko 18/86 Foru Legearen 17. artikulua) eta Eremu ez euskaldunean, hiritarrek Nafarroako Administrazio Publikoetara euskaraz zuzentzeko eskubidea dute. Azken horiek interesatuei gaztelararako itzulpena eska diezaiokete (Euskarari buruzko 18/86 Foru Legearen 18. artikulua).
- xx Epaia 1218/04, 200/03 zenbakidun helegitea, administrazioarekiko auziari dagokiona.
21. UPN defiende en materia de euskera lo que fija la Ley foral del Vascoence (que delimita las zonas vascófona, mixta y no vascófona) y hace suyos los objetivos marcados por ella. Rechaza "categóricamente" la utilización de esta lengua "con fines políticos de avance cultural y proselitismo del *nacionalismo lingüístico vasco*". Señala que frente "a las tesis del independentismo vasco", UPN "reconoce

con Jimeno Jurío que el vascuence no constituyó uno de los elementos esenciales y definidores de la personalidad de Navarra a lo largo de la historia". 2009/02/22, Diario de Navarra.

22. 1980ko azaroan, Nafarroako Legebiltzarrak ondoko ebazpena onartu zuen: "gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza ofizialak izanen dira. Aipatu printzipioa Nafarroako Foruak Berrezartzeko Oinarrietan eta Foru Eraintzaren Hobetzean hartuko da kontuan, eta Foru Parlamentuak erabateko eskumena izanen du, lege baten bidez arautzeko." Euskararen ofizialtasunari buruzko ebazpena. Nafarroako Parlamentuko aldizkari ofiziala, 1980ko azaroaren 18a-34. zk

23. Pedro Pegenaute jaunak eta Jaime Ignacio Del Burgo jaunak aitortu duten bezala, zatiketa hori irizpide politiko bati zor zaio; izan ere, Espainiako agintariek ezarritako irizpidea izan zen hura, Nafarroako erregimen autonomikoa onesteko prozesuan. Nafarroako Parlamentuko Bilkura Saioen Egunkaria. I. Legealdia. 30. zk., 19. or. Eta 32. zk., 23. or. (115)

24. 2000. urtean, Nafarroako Legebiltzarrak deitutako manifestazioan, Legebiltzarreko lehendakariak euskaraz agurtzeko momentuan, jende batzuen protestak jaso zituen. Decenas de miles de navarros piden el fin de la violencia etarra *Los asistentes impidieron que el presidente del Parlamento se pronunciara en euskara*. El Mundo 2000/02/27. Jaime Ignacio del Burgok, Alderdi Popularreko zuzendaritza nazionalaren aurrean, euskarazko hezkuntzaren garapenari eta zabalpenari leporatu zion 2007ko Foru Hauteskundeetan NaBaik lortutako bigarren postua eta UPNek eta CDNek galdutako gehiengoa. Gara. 2007/08/18. "Las encuestas del CIS y de El Mundo han causado sorpresa y conmoción en toda España. Puede ser que el botrino de Bai, donde entra todo el nacionalismo vasco independentista, haya subido desde un 17 al 25%. La culpa sería del Gobierno de Madrid que les da oxígeno, y también de los partidos navarros mayoritarios: UPN les ha concedido mucho de lo que piden en batua, ikastolas, festivales, "korrikas" y postes ilegales de ETB." Ollarra, Guindillas en aceite, Diario de Navarra, 2007/05/13.

25. Nafarroako agintarien esanetan "lanbide heziketan ez dago hizkuntza eredurik, helburu nagusia ez baita hizkuntza bat ikastea edo perfektionatzea, lanbide kualifikazio ezin hobe bat lortzea baizik" 172. orrialdea. Europako Hizkuntza Gutxituen Kartak Espainian duen aplikazioari buruzko bigarren txostenean

26. Abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretua, euskararen erabilera Nafarroako Administrazio Publikoetan arautzeko. 3. zk. – data: 2001/01/05

27. 228/2000 Foru Dekretua, ekainaren 19koa, eta 85/2002 Foru Dekretua, apirilaren 22koa.

28. zehazki, Europako Batasuneko hizkuntza ofizialak, eta bereziki, ingelesa, frantsesa eta alemana.

29. Nafarroako Auzitegi Nagusiak emandako epaiaren 6. funtsa. Epaiaren zenbakia: 584/2004 (Administrazioarekiko Auzien Sala), maiatzaren 20koa. 391/2003 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Epaila: Joaquín Miqueleiz Bronte jaunak.

30. Hizkuntza Gutxituen Europako Bulegoak Nafarroara egindako bisitaren gaineko txostena, 2003ko martxoaren 28an. 18. or.

31. 372/00 FD auzitara eramane zuten IUK, EAK, EAJK eta Batzarrek elkarrekin; era berean, batera errefusatuta zuten ELA, LAB, STEE-EILAS, ESK eta EHNE sindikatuek eta horren kontra ere jo zuten Euskara Kultur Elkargoak; CCOO sindikatuak; Nafarroako herritarrak zatituak dauden hiru hizkuntza eremuetako 58 udalek (86.000 herritarren ordezkartza zutenak); hainbat herritarrek, eta abarrek.

32. 29/03 Foru Dekretua, Nafarroako Aldizkari Ofiziala. 19. zk., 2003/02/12

33. "Gobernuaren bozeramaileak azpimarratu zuen dekretu berria aurrekoaren (372/2000) kopia dela, argitu bazuen ere xedapen gehigarri bat erantsi dela, non zehazten baita eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean (Nafarroa, 1985. urteaz geroztik hiru hizkuntza eremutan banatuta dago) seinalizazio elebiduneko kartelak gaztelania hutsezko kartelekin ordeztzeko jarduera planak aurrekontuetako diru kopuruaren arabera eramanen direla aurrera". Diario

de Noticias, 2003/02/11

34. Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Sala. 1140/2005 zenbakia duen epaia, abenduaren 22koa.

35. Nafarroako Auzitegi Nagusia. Administrazioarekiko Auzien sala. Prozedura arrunta: 221/2007

36. 439/2004 Errege Dekretua

37. 2009/01/22 Ttipi-Ttapak kaleratutako oharra.

38. 2009/01/27 Diario de Noticias

39. 2009/01/26 Berria

40. Urte honetan eta lehenengo aldiz eskaini da D eredia eremu ez euskalduneko udalerrri jakin batzuetan (Noain, Beriain, Aranguren eta Eguesibar), gainekotan ez. Udalerrri horiek guztiek Iruñea ondoan daude eta hiri honekin *continium* bat osatzen dute. Izan ere, aipatutako udalerriek, Iruñea eta ondoko beste udalerrri batzuekin bat eginez, herritarrei jadanik zerbitzu mankomunatu eskaintzen dizkiete: ura, garraioa, zaborrak..... baino euskarazko irakaskuntzari dagokionean, zerbitzuak eta eskubideak ez dira izan berdinak. Horrela aurtengo ikasturtera arte, Iruñean jaiotako herritarrak euskaraz ikasteko eskubidea zuen. Baina ez zuen eskubide berbera Noainen jaiotakoak. Eta Iruñea eta Noain mugakide dira. Iruñea eremu mistoan baitago eta Noain eremu ez euskaldunean.

41. 7/2007 FORU LEGEA, martxoaren 23koa, Lege horren xedea da eremu ez euskalduneko ikastolentzako finantzaketa arautzea.

42. 2007/10/18 Diario de Noticias

43. www.euskarabidea.es 2009/01/28

44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala; 1992ko azaroaren 24koa, 68. zenbakia

45. Abenduaren 15eko Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea aldatzeko foru lege proposamena. Nafarroako Parlamentuko Sozialistak, Eusko Alkartasuna eta Mistoa-Ezker Batua parlamentuko taldeek aurkeztutakoa. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala; 1993ko azaroaren 18a, 45. zenbakia

46. Abenduaren 15eko Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea aldatzeko foru lege proposamena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala; 1994ko apirilaren 21a, 23. zenbakia

47. Abenduaren 15eko Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea aldatzeko foru lege proposamena. Convergencia de Demócratas de Navarra parlamentuko taldeak aurkeztua. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala, 1998ko maiatzaren 14a, 33. zenbakia eta Abenduaren 15eko Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea aldatzeko foru lege proposamena, Eusko Alkartasuna taldeko parlamentariak aurkeztua. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala, 1998ko irailaren 15a, 68. zenbakia.

48. Ikus Diario de Noticias 2004/09/16; 2004/09/23; 2004/09/30; 2004/10/07; Gara 2004/11/04.

49. Aldaketa Aranguren, Noain, Beriain eta Galar eremu mistora pasatzera zuen helburu.